

105. FITXA EAEko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldietarako 2025. urteko laguntzak, de minimis araubideari atxikitakoak

Nori zuzendua: EAEko landa- edo itsasertz-eremuetan gizarte-ekitaldiak sustatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak pribatuak zein publikoak.

Sarbide-esteka: [EAEko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldietarako 2025. urterako laguntzak, minimis araubideari atxikitakoak - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko martxoaren 4koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira EAEko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldietarako 2025. urteko laguntzak, de minimis araubideari atxikitakoak](#)

Eremuak: Landa eta itsasertz garapena

Zenbatekoa: 200.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/11/15 edo aurrekontua agortu arte

Laburpena

Agindu honen xedea da **gizarte-ekitaldiak sustatzeko** laguntzak bideratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko **landa- eta itsasertz-eremua dinamizatzeko**, betiere honako helburu hauek lortzen laguntzen badute:

- Sektore pribatuak eta publikoak** landa- eta itsasertz-eremuko gizarte-ekitaldiak finantzatzen **parte-har dezatela sustatzea**, eremu horiek dinamizatzeko.
- Gizarte-ekitaldi berriak sustatzea**, eta landa- eta itsasertz-eremuan eragin positibo esanguratsua dutenak finkatzea.
- Inpaktu ekonomikoa sortzea** jarduera-eremu horretan.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Ekitaldi hauek jotzen dira diruz laguntzeko modukotzat: lehiaketak, jardunaldiak, eztabaidak, tailerrak, txapelketak, hitzaldi eta erakusketak, musika-, antzerki-, dantza- eta bertsolaritza-ikuskizunak, errezitalak eta antzekoak, betiere ekitaldion **eragin dinamizatzailea** eta **eremuan duten eragin**

ekonomiko positiboa agerian jartzen bada. Kanpoan geratzen dira nekazaritza-jarduerarekin zuzeneko lotura duten ekitaldiak, hala nola merkatuak, nekazaritzako elikagaien azokak eta herriko jaiak, bai eta toki-entitateek antolatzen dituzten eta toki-entitateon urteko programazioaren parte diren jarduerak ere.

Ez dira diruz lagunduko 5.000 biztanletik gorako udalerrietan egiten diren ekitaldien eskabideak (Eustatek argitaratutako azken errolda ofizialeko datuak hartuko dira kontuan).

Diruz lagundutako jarduera **EAEko landa- edo itsasertz-eremu** batean garatu beharko da. Eremuok, betiere, **ABEtik GV4ra eta L1etik L7ra bitarteko kalteberatasun/itsasertzekotasun-maila izan beharko dute** (agindu honen II. eranskinean zehaztuta daude maila horiek).

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

Gastu hauek sartzen dira (zerrenda soila da, ez dira denak aipatzen):

- a) Eskatutako laguntza xede duen ekitaldia egiteko langileak kontratatzeako gastuak (kanpoan geratzen dira erakunde eskatzailearen plantillako langileak).
- b) Ekitaldia eta jarduerak gauzatzeko zerbitzu profesionalen errentamendua.
- c) Lokalen alokairuak (bazter utzita erakunde onuradunaren egoitza sozialaren alokairua).
- d) Ekitaldiak eta jarduerak gauzatzeko instalazioak eta zerbitzu teknikoak.
- e) Laguntzaren xede diren ekitaldien publizitatearekin eta hedapenarekin lotutako gastuak.
- f) Nahitaezko aseguruak kontratatzea.
- g) Emandako garaikurrak edo sariak.
- h) Legeria nazionalaren arabera berreskuratu ezin den BEZa.

Gastuetarako aldi hautagarria

Jarduerak osorik **2025ean** egin beharko dira, diruz lagundu ahal izateko.

Laguntzen zenbatekoa

Laguntza horien zenbatekoak ez du jardueraren kostu osoaren **% 60** gaindituko, eta ez da **15.000 eurotik** gorakoa izango.